

GABONETAKO GUARDIEI BURUZKO OHARRA

- 1.-** 2025ean, abenduaren 17tik 24ra bitartean eta abenduaren 24tik 31ra bitartean, zortzi egunez epaitegian bertan egoteko eta prestasuna izateko guardietan, zortzigarren eguna abenduaren 24a eta 31 izango da, hurrenez hurren. Bi egun horiek jaiegunak dira hitzarmen bidez, eta, beraz, guardia horiek egiten dituzten langileek ez dute lantokira joan beharko, ez baitira Berehalako Delitu Arinak (BDA) egingo.
- 2.-** BDAk ez dira bederatzigarren egunera eramango; izan ere, bi kasuetan, 2025eko abenduaren 25a eta 2026ko urtarrilaren 1a ere jaiegunak dira.
- 3.-** Abenduaren 17tik 24ra bitartean eta abenduaren 24tik 31ra bitartean zortzi egunez epaitegian bertan egoteko eta prestasuna izateko guardiak egiten dituzten funtzionarioek bederatzigarren eguna ohi bezala libre izango dute, hurrenez hurren, 2025eko abenduaren 25ean eta 2026ko urtarrilaren 1ean.
- 4.-** Egun librea aldatzeko dagokion eskabidea aurkeztu beharko da.
- 5.-** Egun librea aldatzeko eskubidea, zortzi egunez epaitegian bertan egoteko eta prestasuna izateko guardian, ez da nagusituko aurretik emandako lizentzia eta baimenen gainetik.
- 6.-** Egun librea aldatzeko eskubidea aurretik emandako edozein lizentzia eta baimenen gainetik ez egotea 24 orduko guardiari ere aplikatuko zaio.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 29an

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZA